

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 22ko 25/2020 Foru Agindua. Aldatzea honako foru agindu hauek: abenduaren 27ko 761/2011, abenduaren 20ko 828/2013, abenduaren 23ko 734/2008, martxoaren 9ko 133/2005 eta irailaren 27ko 529/2017, hurrenez hurren onesten dituztenak 193, 194, 196, 198 eta 289 ereduak

Arabako Foru Aldundiak ahalik eta zerga informaziorik zehatzena lortzeko, hura unean uneko errealitatekin bat etorri eguneratua egon behar da, albait gutxien eragiteko zerga betebeharraren dutenengan informazioa eman beharra betetzean.

Horregatik, hainbat aldaketa egin behar da zenbait informazio betebeharrak bete behar izatearen ondorioz informazio hornitzeari buruzko araudian. Komeni da aldaketa horiek arau berdinean integratzea –halaxe egin izan da beste ekitaldi batzuetan–, xedea baita zerga betebeharraren dutenek ahalik eta ondoen jakitea zer aldaketa egiten diren.

Arauaren lehenengo apartatuak 193 ereduak aldatzen du –“ordainketa” eremua aldatzen da–, hutsik egin ez dadin atzerriko baloreen dibidenduetarako datuak betetzean, baldin eta erakunde aitortzailea ez bada lehenengo ordaintzailea Espainian.

Agindu honen bigarren apartatuaren bidez aldatzen da 194 ereduak, “eskualdatze, amortizatze, itzultze, trukatzeko edo bihurtze balioa” ereduari buruzko informazioa eguneratuta; izan ere, eroste balioaren eremuan dagoenaren zehaztasun berdina eman da (ez murriztea eragiketaren gastu osagarriak).

Hirugarren apartatuak 196 ereduak aldatzen du, jakinarazpenetarako helbideari buruzko informazioak aukera eman dezan atzerriko helbide bat jartzeko.

Agindu honen laugarren apartatuaren bidez aldatzen da 198 ereduak, batez ere hura egokitze beharrezkoa den informazioari zergadunari laguntzeko bere balore negoziatuen zorroa eramaten. Edonola ere, aldaketa horien indarra 2020ko ekitaldiaren informazio aitortzei aplikatuko zaie, zeinak 2021etik aurrera aurkeztu behar baitira, halaxe ezartzen baitu agindu honen azken xedapenak.

Bukatzeko, bosgarren apartatuak 289 ereduak aldatzen du, zeina baita elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen informazio aitortzeari buruzkoa (CRS), eguneratuta I. eta II. eranskinen edukia informazio truketarako konpromisoa hartu duten herrialdeen eguneko egoera kontuan izanda, zerrendaren barruan sartzen direlarik herrialde jakin batzuk, zeinekin 2020ko ekitaldian truketuko baita informazioa.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da onestea 193, 194, 196, 198 eta 289 ereduari buruzko informazio aitortpenak aldatzeko arau berria.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, zeinak 193 ereduak onesten baitu, bai eta ereduaren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisikoak eta logikoak ere. Eredu horren bidez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higikorren

etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkezten da.

Aldatzen da "ORDAINKETA" eremua, 95 posizioa duena abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (hartzailearen erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
95	Numerikoa	ORDAINKETA "A", "B" edo "D" hartukizunen gakoetarako baino ez. Ondoren zerrendatzen diren zenbaki hauetako bat adieraziko da aitortzaileak egindako ordainketa honako kontzeptu hauetako baten batengatik egin duen azaltzeko: 1 Jaulkitzaile bezala. 2 Espainiar baloreen bitartekari bezala. 3 Atzerriko baloreen bitartekari bezala. 4 Atzerriko balio ez-atxikitzaileen bitartekari bezala.

BIGARRENA. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 20ko 828/2013 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 194 eredua, bai eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisikoak eta logikoak ere. Eredu horren bidez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez egoiliarren errentaren zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkezten da, kapital higiezinaren etekinenak eta eskualdatu, amortizatu, itzuli, trukatu edo bihurtu den edozein aktibo eskuratzetik eta besteren kapitalak erabiltzetik eratorritako errentenak.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko 194 ereduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoetan, zeina abenduaren 20ko 828/2013 Foru Agindua onetsi baitzuen:

Bat. Aldatzen da "ESKUALDATZE, AMORTIZATZE, ITZULTZE, TRUKATZE EDO BIHURTZE BALIOA" eremua, 131tik 143ra bitarteko posizioak dituen 2 motako erregistroetan (hartzailearen erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
131-143	Numerikoa	ESKUALDATZE, AMORTIZATZE, ITZULTZE, TRUKATZE EDO BIHURTZE BALIOA Eredu numerikoa, 13 posizioak. Dagokion eskualdatze, amortizatze, itzultze, trukate edo bihurtze balioa zeinurik eta koma hamartarrik gabe adieraziko da, "JATORRI" eremuan adierazitakoaren arabera. Horretarako, ez dira eragiketaren gastu osagarriak murriztuko. Ez da "ESKUALDATZE, AMORTIZATZE, ITZULTZE, TRUKATZE EDO BIHURTZE BALIOA" eremua beteko, baldin eta finantza aktiboen eskualdaketa egin bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 78.f) artikuluan landutako kupoiaren epemugaren aurreko 30 egunen barruan (Horrelakorik gertatuz gero, "JATORRI" eremuan D letra adieraziko da). Euro zentimotan adieraziko dira zenbatekoak; beraz, ez dute inoiz koma hamartarrik izango.

Bi. Aldatzen da "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO DIRU SARREREN OINARRIA" eremua, 157tik 169ra bitarteko posizioak dituen 2 motako erregistroetan (hartzailearen erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
157-169	Alfanumerikoa	<p>ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO DIRU SARREREN OINARRIA / ONDARE ALDAKUNTZA (Kooperatibak)</p> <p>Ondoko eragiketa honen emaitza den zenbatekoa adieraziko da, haren zeinuarekin: "ESKUALDATZE, AMORTIZATZE, ITZULTZE, TRUKATZE EDO BIHURTZE BALIOA" eremuan adierazitako zenbatekoa ken "EROSTE EDO HARPIDETZE BALIOA" eremuan adierazitako zenbatekoa.</p> <p>Kooperatiben ekarpen sozialen eskualdatze edo itzultzeetan, hauexetan ezarritako arauak aplikatzearen ondorio den zenbatekoa adieraziko da: Kooperatiben Zerga Araubidearen ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 24. artikulua eta PFEZaren 33/2013 Foru Arauaren 40. eta hurrengo artikulua, hala badagokio, haren lehen xedapen iragankorra.</p> <p>Baldin eta atxikitzen bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 78, f) artikuluan landutako kupoiaren epemugaren aurreko 30 egunen barruan egindako finantza aktiboen eskualdaketatik kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zati bat (Horrelakorik gertatuz gero, "JATORRI" eremuan D letra adieraziko da), atxikipenaren oinarria izango da eskualdatutako balioaren kupoi korrituaren baliokidea den prezioaren zatia.</p> <p>Eremu hori ondoko hauetan banatzen da:</p> <p>157 ZEINUA: Alfabetikoa Aurreko eragiketaren emaitzaren zenbatekoa negatiboa bada, "N" idatziko da. Bestela, hutsik utzi behar da.</p> <p>158-169 ZENBATEKOA: Eremu numerikoa, 12 posizioak. Aipatutako eragiketa horren emaitzaren zenbatekoa zeinurik eta koma hamartarrik gabe adieraziko da. Euro zentimotan adieraziko dira zenbatekoak; beraz, ez dute inoiz koma hamartarrik izango.</p>

Hirugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 23ko 734/2008 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 196 eredu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, sozietateen gaineko zergarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena (establezimendu iraunkorrak). Atxikipenak eta konturako diru sarrerak, kapital higigarrien etekinen gainekoak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortzen diren errenten gainekoak, finantza aktiboen gaineko eragiketetan, baimendutako pertsonen urteko informazio aitortpenean eta finantza erakundeek kontuetan dituzten saldoetan oinarritutakoak barne.

Aldatzen da "PROBINTZIA KODEA" eremua, 472-473 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA																																																																																																								
472-473	Numerikoa	<p>PROBINTZIAREN KODEA</p> <p>Probintziaren kodea jarri behar da.</p> <p>Probintziari edo hiri autonomoari dagozkion bi digituak adieraziko dira; hona horien kodeen zerrenda:</p> <table border="0"> <tr><td>ALBACETE</td><td>02</td><td>JAEN</td><td>23</td></tr> <tr><td>ALICANTE/ALACANT</td><td>03</td><td>LEON</td><td>24</td></tr> <tr><td>ALMERIA</td><td>04</td><td>LLEIDA</td><td>25</td></tr> <tr><td>ARABA/ÁLAVA</td><td>01</td><td>LUGO</td><td>27</td></tr> <tr><td>ASTURIAS</td><td>33</td><td>MADRIL</td><td>28</td></tr> <tr><td>AVILA</td><td>05</td><td>MALAGA</td><td>29</td></tr> <tr><td>BADAJOS</td><td>06</td><td>MELILLA</td><td>52</td></tr> <tr><td>BARTZELONA</td><td>08</td><td>MURTZIA</td><td>30</td></tr> <tr><td>BIZKAIA</td><td>48</td><td>NAFARROA</td><td>31</td></tr> <tr><td>BURGOS</td><td>09</td><td>OURENSE</td><td>32</td></tr> <tr><td>CACERES</td><td>10</td><td>PALENTZIA</td><td>34</td></tr> <tr><td>CADIZ</td><td>11</td><td>LAS PALMAS</td><td>35</td></tr> <tr><td>KANTABRIA</td><td>39</td><td>PONTEVEDRA</td><td>36</td></tr> <tr><td>CASTELLÓN/CASTELLÓ</td><td>12</td><td>ERRIOXA</td><td>26</td></tr> <tr><td>CEUTA</td><td>51</td><td>SALAMANCA</td><td>37</td></tr> <tr><td>CIUDAD REAL</td><td>13</td><td>S. C. TENERIFEKOA</td><td>38</td></tr> <tr><td>KORDOBA</td><td>14</td><td>SEGOVIA</td><td>40</td></tr> <tr><td>A CORUÑA</td><td>15</td><td>SEVILLA</td><td>41</td></tr> <tr><td>CUENCA</td><td>16</td><td>SORIA</td><td>42</td></tr> <tr><td>GIPUZKOA</td><td>20</td><td>TARRAGONA</td><td>43</td></tr> <tr><td>GIRONA</td><td>17</td><td>TERUEL</td><td>44</td></tr> <tr><td>GRANADA</td><td>18</td><td>TOLEDO</td><td>45</td></tr> <tr><td>GUADALAJARA</td><td>19</td><td>VALENCIA/VALÉNCIA</td><td>46</td></tr> <tr><td>HUELVA</td><td>21</td><td>VALLADOLID</td><td>47</td></tr> <tr><td>HUESCA</td><td>22</td><td>ZAMORA</td><td>49</td></tr> <tr><td>BALEAR UHARTEAK</td><td>07</td><td>ZARAGOZA</td><td>50</td></tr> </table> <p>Egoitza atzerrian edukiz gero, 99 gakoa jarri behar da.</p>	ALBACETE	02	JAEN	23	ALICANTE/ALACANT	03	LEON	24	ALMERIA	04	LLEIDA	25	ARABA/ÁLAVA	01	LUGO	27	ASTURIAS	33	MADRIL	28	AVILA	05	MALAGA	29	BADAJOS	06	MELILLA	52	BARTZELONA	08	MURTZIA	30	BIZKAIA	48	NAFARROA	31	BURGOS	09	OURENSE	32	CACERES	10	PALENTZIA	34	CADIZ	11	LAS PALMAS	35	KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36	CASTELLÓN/CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26	CEUTA	51	SALAMANCA	37	CIUDAD REAL	13	S. C. TENERIFEKOA	38	KORDOBA	14	SEGOVIA	40	A CORUÑA	15	SEVILLA	41	CUENCA	16	SORIA	42	GIPUZKOA	20	TARRAGONA	43	GIRONA	17	TERUEL	44	GRANADA	18	TOLEDO	45	GUADALAJARA	19	VALENCIA/VALÉNCIA	46	HUELVA	21	VALLADOLID	47	HUESCA	22	ZAMORA	49	BALEAR UHARTEAK	07	ZARAGOZA	50
ALBACETE	02	JAEN	23																																																																																																							
ALICANTE/ALACANT	03	LEON	24																																																																																																							
ALMERIA	04	LLEIDA	25																																																																																																							
ARABA/ÁLAVA	01	LUGO	27																																																																																																							
ASTURIAS	33	MADRIL	28																																																																																																							
AVILA	05	MALAGA	29																																																																																																							
BADAJOS	06	MELILLA	52																																																																																																							
BARTZELONA	08	MURTZIA	30																																																																																																							
BIZKAIA	48	NAFARROA	31																																																																																																							
BURGOS	09	OURENSE	32																																																																																																							
CACERES	10	PALENTZIA	34																																																																																																							
CADIZ	11	LAS PALMAS	35																																																																																																							
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36																																																																																																							
CASTELLÓN/CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26																																																																																																							
CEUTA	51	SALAMANCA	37																																																																																																							
CIUDAD REAL	13	S. C. TENERIFEKOA	38																																																																																																							
KORDOBA	14	SEGOVIA	40																																																																																																							
A CORUÑA	15	SEVILLA	41																																																																																																							
CUENCA	16	SORIA	42																																																																																																							
GIPUZKOA	20	TARRAGONA	43																																																																																																							
GIRONA	17	TERUEL	44																																																																																																							
GRANADA	18	TOLEDO	45																																																																																																							
GUADALAJARA	19	VALENCIA/VALÉNCIA	46																																																																																																							
HUELVA	21	VALLADOLID	47																																																																																																							
HUESCA	22	ZAMORA	49																																																																																																							
BALEAR UHARTEAK	07	ZARAGOZA	50																																																																																																							

LAUGARRENA. Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 198 eredu, finantza aktiboen eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena, bai eta haren barruko orrien ordezkien ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. Aldatzen da "KODE GAKOA" eremua, 120 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurreantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
120	Numerikoa	<p>KODE GAKOA</p> <p>Jaulkitzaile kodearen eremuaren edukia eta, hala badagokio, ISIN kodea identifikatzen ditu.</p> <p>Orokorrean, baloreen identifikazioa 4 gakoa jarriz egingo da, salbu eta baloreek ISIN esleituta ez daukatenean edo jaulkitzaileak IFZ esleituta ez daukanean.</p> <p>Har ditzakeen balioak:</p> <p>1 Baloreen identifikazioa jaulkitzailearen IFZren bidez bakarrik egiten da.</p> <p>2 Baloreen identifikazioa ISIN kodearen bidez bakarrik egiten da.</p> <p>3 ISIN esleituta ez daukaten atzerriko baloreei dagokie.</p> <p>4 Baloreen identifikazioa ISIN kodearen bidez (317-328 posizioak) eta jaulkitzailearen IFZren bidez (121-132 posizioak) egiten da.</p>

Bi. Aldatzen da "JAULKITZAILE KODEA" eremua, 121-132 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
121-132	Alfanumerikoa	<p>JAULKITZAILE KODEA</p> <p>"KODE GAKOA" eremuak (2 erregistro motako 120 posizioa) 1 balioa duenean, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. Berme edo gozamen eskubideak direnean, haiek eratzten diren ondasunen titularraren IFZ jarri behar da ("KODE GAKOA" eremua, 120 posizioa, 1 balioaz beteta dagoen kasua).</p> <p>"KODE GAKOA"n (120 posizioan) 4 balioaz identifikatutako baloreetarako, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da eremu honetan. ISIN kodeari dagokion identifikazioa "ISIN KODEA" eremuan bete behar da (317-328 posizioak).</p> <p>ISIN kodea esleituta ez daukaten atzerriko baloreetarako, "ZXX" gakoa agertuko da, "XX" herrialde jaulkitzailearen kodea izanik, urtarrilaren 20ko 13/2009 Foru Aginduaren IV. eranskinean agertzen diren herrialde gakoan arabera ("KODE GAKOA" eremua, 120 posizioa, 3 balioaz beteta dagoen kasua).</p> <p>"KODE GAKOA" eremuarekin identifikatutako balioetarako (120 posizioa, 2 balioduna), eremu horrek ez du edukirik izango, eta "ISIN KODEA" eremua bete behar da (317-328 posizioak).</p>

Hiru. Aldatzen da "JATORRI GAKOA" eremua, 133 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
133	Alfabetikoa	<p>JATORRI GAKOA</p> <p>Gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>A Kostu bidezko eragiketak. Akzio erabat ordainduen ematea, halaber, gako honekin beteko da.</p> <p>B Kostu gabeko inter vivos eragiketak.</p> <p>C Gainerako gakoek bestelako esleipen edo aplikazio eragiketak.</p> <p>D Kostu gabeko mortis causa eragiketak.</p>

Lau. Aldatzen da "ERAGIKETA GAKOA" eremua, 134 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
134	Alfabetikoa	<p>ERAGIKETAREN GAKOA</p> <p>A Eskubideen eskuratzea edo eraketa.</p> <p>B Eskubideak eskuratzea edo eratzea irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuak (burtsako eragiketa bereziei eta balore kotizatuen burtsaz kanpoko eskualdatzei eta batez besteko truke haztatuei buruzkoa) 2. artikuluan jasotzen dituen eragiketen bidez.</p> <p>C Trukea.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>D Bihurketa.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, bihurketarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko bihurketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>E Eskubideak ezereztea edo azkentzea.</p> <p>F Jaulkipen primaren itzulketa.</p> <p>Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, H gakoa jarri behar ez denean.</p> <p>G Kapitala murriztea ekarpenak itzuliz.</p> <p>Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, I gakoa jarri behar ez denean.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
		<p>H Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen jaulkipen primaren itzulketak.</p> <p>I Kapital murrizketa ekarpenak itzuliz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreei dagokiena.</p> <p>J Kapital murrizketa baloreak amortizatuz.</p> <p>K Banatu gabeko mozkinetatik sortutako kapital murrizketa.</p> <p>L Baloreen splita eta kontrasplita. Bi eragiketa aitortu behar dira, splitarena edo kontrasplitarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zerbakiak gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko split (edo kontrasplit)/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zerbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>O Maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian araututako balore maileguak.</p> <p>P Balore maileguaren eraketa.</p> <p>Q Balore maileguaren azkentzea.</p> <p>S Harpidetza.</p> <p>T Eskualdatzea, amortizazioa edo itzultzea.</p> <p>U Eskualdatzea, amortizazioa edo itzultzea irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuak (burtsako eragiketa bereziei eta balore kotizatuen burtsaz kanpoko eskualdatzei eta batez besteko truke haztatuei buruzkoa) 2. artikuluan jasotzen dituen eragiketen bidez.</p> <p>V Balore trukea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 105. artikuluko baldintzak betetzen dituenak. Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zerbakiak gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zerbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>X Akzio erabat ordainduen ematea. Gako hau jarri behar da, aitortuak alde aurretik zeuzkan harpidetza eskubideei dagozkien akzioetarako. Aitortuak alde aurretik zeuzkan gainerako harpidetza eskubideei dagokienez, baldin eta nahikoa ez badira eta horregatik beste eskubide batzuk eskuratu baditu akzio berriak harpidetzeko, ez da jarriko X gako hau, ezpada elkarren artean loturik dauden bi erregistro independente aitortuko dira: bata harpidetza eskubideak eskuratzeagatik (A eragiketa gakoa) eta bestea akzioak harpidetzeagatik (S eragiketa gakoa). Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zerbakiak gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko eskuratze/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zerbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>Y Bat-egitea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean. Bi eragiketa aitortu behar dira, bat-egitearena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zerbakiak gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko bat-egite/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zerbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak). Bat-egite eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, C gakoa jarri behar da.</p> <p>Z Zatiketa, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean. Bi eragiketa aitortu behar dira, zatiketarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zerbakiak gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko zatiketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zerbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak). Zatiketa eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, C gakoa jarri behar da.</p> <p>W Bestelako eragiketak.</p>

Bost. Aldatzen da “MERKATU GAKOA” eremua, 135 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
135	Alfabetikoa	MERKATU GAKOA Zein merkatutan negoziatzen den eragiketa, hau jarri behar da: A Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala. B Europar Batasuneko atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala. C Bestelako merkatu nazionalak. D Atzerriko bestelako merkatuak. F Fede emaile publikoek esku hartu duten eragiketak. O Merkatutik kanpoan egindako eragiketak (OTC). P Atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala (Europar Batasunekoak salbu).

Sei. Aldatzen da “KONPENTSAZIOAK” eremua, 224-235 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
224-235	Numerikoa	KONPENTSAZIOAK Baloreak mailegatzeko eragiketen kasuan –horretarako, “O” jarri da “ERAGIKETA GAKOA” eremuan (2 motako erregistroaren 134 posizioa)–, konpentsazioen zenbatekoa jarriko da eremu horretan. “ERAGIKETA GAKOA” eremuaren gainerako gakoetarako (2 motako erregistroaren 134 posizioa), salbu eta V, Y eta Z gakoetarako, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81. artikulutik 84. artikulura bitartean ezarritako balore negoziagarrien likidazio prozeduratik eratorritako konpentsazioen eta likidazio doiketen zenbatekoa jarriko da. Eremu hori bitan banatzen da: 224-233 Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa. 234-235 Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.

Zazpi. Gehitzen da “ISIN KODEA” eremu berria, 317-328 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
317-328	Alfanumerikoa	ISIN KODEA “KODE GAKOA” eremuak (2 erregistro motako 120 posizioa) 2 eta 4 balioak hartzen dituztenean, esleitutako ISIN kodea jarri behar da, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, balore negoziagarriak eta finantza izaerako beste tresna batuk kodifikatzeko dituen eginkizunetan, kodeen egiturari buruz emandako uztailaren 28ko 1/2010 Arau Teknikoaren arabera konfiguraturata.

Zortzi. Gehitzen da “ERAGIKETAREN GASTUAK” eremua, 329-340 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
329-340	Numerikoa	ERAGIKETAREN GASTUAK A gakoa jartzen baldin bada “BALORE GAKOA” eremuan (137 posizioa), eta A, B edo P gakoa jartzen baldin bada “MERKATU GAKOA” eremuan, eragiketa hori egiteak dakartzan gastuen zenbatekoa jarriko da eremu horretan, hala badagokio. Eremu hori ezin izango da bete hartzailea bada sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna (establezimendu iraunkorrek). Eremu hori bitan banatzen da: 329-338 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati osoa. 339-340 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati hamartarra.

Bederatzi. Gehitzen da "LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
341-347	Numerikoa	LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA Eremu hori beteko da C, D, L, V, Y eta Z eragiketa gakoiei dagozkien loturiko eragiketetan (134 posizioa), kasuan kasuko loturiko eragiketaren "HURRENKERA ZENBAKIA" eremuan azaltzen den hurrenkera zenbakia jarrita (84-90 posizioak). Halaber, bete egingo da harpidetza eskubideak eskuratzeko eragiketetan (A eragiketa gakoa) eta akzioak harpidetzeko eragiketetan (S eragiketa gakoa), baldin eta eragiketa horiek zerrendatu behar badira, halaxe adierazten baita "ERAGIKETA GAKOA" eremuan (X gakoa).

Hamar. Gehitzen da "EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA" eremua, 348-360 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
348-360	Alfanumerikoa	EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA "ERAGIKETA GAKOA" eremuan (134 posizioan) V, Y edo Z gakoa jartzen baldin bada, hartan emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoa jarri behar da, hala badagokio. Eremu hori ondoko hauetan banatzen da: 348 Konpentsazioaren zeinua. "N" balioaz beteko da bakar-bakarrik aitortuak emandako diru konpentsazioak direnean. 349-358 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati osoa. 359-360 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati hamartarra.

Hamaika. Gehitzen da "ERAGIKETAREN ORDUA" eremua, 361-366 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
361-366	Numerikoa	ERAGIKETAREN ORDUA "MERKATU GAKOA" eremuan (135 posizioan) A, B edo P gakoa jartzen baldin bada, eragiketa egiten den une zehatza jarri behar da, ordua, minutua eta segundoa adieraziz. Eremu hori ez da beteko, baldin eta aitortu berarenek diren eta egun berean, prezio berean, egiten diren eragiketak badira, eta ezin izango da bete, baldin eta errentaren hartzailea bada sozietateen gaineko zergaren zergaduna edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena (establezimendu iraunkorrek). Eremu hori hirutan banatzen da: 361-362 Eragiketaren ordua, 24 orduko formatuan. 363-364 Eragiketaren minutua. 365-366 Eragiketaren segundoa.

Hamabi. Kentzen da "AITORTZAILEAREN IZAERA" eremua, 198 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 1 erregistro motan (aitortzailearen erregistroa).

Hamahiru. Gehitzen da "AITORTZAILEAREN IZAERA" eremua, 367 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa). Haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
367	Alfabetikoa	AITORTZAILEAREN IZAERA Eremu hori "X" batekin beteko da kasu honetan bakarrik: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 123.16 artikuluan aipatzen diren eragiketetan, aitortzaileak esku hartzen badu eragiketan abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak (kontuez, eragiketez eta finantza aktiboez eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideez informatzeko betebeharra arautzen duena) 7. artikuluan aipatzen duen informazio aitortpena aurkezteko betebeharra duten subjektuetako bat bezala. Gainerako kasuetan, eremu hori hutsik utziko da.

Hamalau. "ZURIUNEAK" eremua, 317-500 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), 368-500 posizioetara aldatzen da.

BOSGARRENA. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen informazio aitortpenaren 289 eredua onesten duena.

Bat. Aldatzen da I. ERANSKINA - Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinei buruz finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredua) aurkeztu behar baitute. Aurrerantzean eduki hau izango du:

OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETOAREN 4. ARTIKULUAREN B) ETA C) LETRA (*)
EB	EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK
2020 ETA HURRENGOAK	2020 ETA HURRENGOAK	2020 ETA HURRENGOAK
Alemania	Liechtenstein	Albania
Austria	San Marino	Antigua eta Barbuda
Belgika	Andorra	Saudi Arabia
Bulgaria	Monako	Argentina
Zipre	Suitza	Aruba (Herbehereak)
Kroazia		Australia
Danimarka (**)		Azerbaijan
Eslovenia		Barbados
Estonia		Belize
Finlandia		Bonaire (Herbehereak)
Frantzia		Brasil
Gibraltar (Erresuma Batua)		Kanada
Grezia		Txile
Hungaria		Txina
Irlanda		Kolonbia
Italia		Korea
Letonia		Costa Rica
Lituania		Curaçao (Herbehereak)
Luxenburgo		Dominika
Malta		Ekuador
Herbehereak (**)		Ghana
Polonia		Granada
Portugal		Groenlandia (Danimarka)
Erresuma Batua (**)		Guernesey (Erresuma Batua)
Txekiar Errepublika		Hong Kong
Eslovakiar Errepublika		India
Errumania		Indonesia
Suedia		Islandia
		Cook uharteak (Zeelanda Berria)
		Man uharteak (Erresuma Batua)
		Faroeak (Danimarka)
		Israel
		Japonia
		Jersey (Erresuma Batua)
		Kazakhstan
		Libano
		Macau (Txina)

OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN B) ETA C) LETRAK (**)
EB	EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK
2020 ETA HURRENGOAK	2020 ETA HURRENGOAK	2020 ETA HURRENGOAK
		Malaysia Maurizio Mexiko Montserrat Nigeria Niue Norvegia Zeelanda Berria Oman Pakistan Panama Errusia Saba (Herbehereak) Samoa Saint Kitts eta Nevis San Eustakio (Herbehereak) San Martin (Herbehereak) Saint Vincent eta Grenadinak Santa Luzia Seychelleak Singapur Hegoafrika Turkia Uruguai Vanuatu

(*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haien buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(**) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabearen agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikularen b) eta c) letrak].

Bi. Aldatzen da II. eranskina - Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 idatz zatian aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailatzat» jotzen direnena. Haren edukia hau da:

JURISDIKZIO PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA		
Albania	Frantzia	Maurizio
Alemania	Ghana	Mexiko
Andorra	Gibraltar (Erresuma Batua)	Monako
Aingira (Erresuma Batua)	Granada	Montserrat (Erresuma Batua)
Antigua eta Barbuda	Grezia	Nauru
Saudi Arabia	Groenlandia (Danimarka)	Nigeria
Argentina	Guernesey (Erresuma Batua)	Niue
Aruba (Herbehereak)	Hong Kong	Norvegia
Australia	Hungaria	Zeelanda Berria
Austria	India	Oman

JURISDIKZIO PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA		
Azerbaijan	Indonesia	Herbehereak
Bahrain	Irlanda	Pakistan
Bahamak	Man uhartea (Erresuma Batua)	Panama
Barbados	Islandia	Polonia
Belgika	Kaiman uharteak (Erresuma Batua)	Portugal
Belize	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Qatar
Bermuda (Erresuma Batua)	Faroeak (Danimarka)	Erresuma Batua
Brasil	Marshall Uharteak	Txekiar Errepublika
Bulgaria	Turkak eta Caicoak (Erresuma Batua)	Eslovakiar Errepublika
Kanada	Birjina uharteak (Erresuma Batua)	Errumania
Txile	Israel	Errusia
Txina	Italia	Samoa
Zipre	Japonia	Saint Kitts eta Nevis
Kolonia	Jersey (Erresuma Batua)	San Marino
Korea	Kazakhstan	San Martin (Herbehereak)
Costa Rica	Kuwait	Saint Vincent eta Grenadinak
Kroazia	Letonia	Santa Luzia
Curaçao (Herbehereak)	Libano	Seychelleak
Danimarka	Liberia	Singapur
Dominika	Liechtenstein	Hegoafrika
Ekuador	Lituania	Suedia
Arabiar Emirerri Batuak	Luxenburgo	Suitza
Eslovenia	Macau	Turkia
Estonia	Malaysia	Uruguai
Finlandia	Malta	Vanuatu

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta, 2019ko ekitaldiko informazioari dagokionez, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitortpenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, salbu eta laugarren apartatua, 2021etik aurrera aurkezten diren 2020ko aitortpenei aplikatuko zaie eta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 22a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA